



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua ondo funtziona dadin, hainbat jarduera funtsezko egin behar dira. Jarduera hauek dira *ENKARNESK* martxan mantentzeko eta bezeroei balio ona eskaintzeko beharrezkoak.

Entrenamenduarekin lotutako jarduerak:

Gimnasioko klaseak antolatzea eta ematea, entrenamendu pertsonalizatuak prestatzea, makinen eta instalazioen mantentzea, bezeroei laguntza eta orientazioa ematea entrnamenduetan.

Elikadura eta osasunarekin lotutako jarduerak:

Kafetegiko produktu osasungarriak prestatzea eta saltzea, elikadura-ohitura osasungarriak sustatzea, nutrizionistaren kontsultak antolatzea eta kudeatzea, bezeroen jarraipena egitea elikadurari dagokionez.

Plataforma digitalarekin lotutako jarduerak:

Aplikazioa sortzea eta eguneratzea, klaseen eta nutrizionistaren hitzorduak erreserbatzeko sistema kudeatzea, bezeroen puntuak eta sariak kontrolatzea, bezeroekin komunikazioa mantentzea aplikazioaren bidez.

Kudeaketa eta antolaketa jarduerak:

Langileen antolaketa eta ordutegiak kudeatzea, materialaren eta hornitzaileen kontrola egitea, bezeroen harremanak zaintzea, negozioaren funtzionamendu orokorra gainbegiratzea.

Marketina eta motibazioa:

Gimnasioa eta kafetegia sustatzeko ekintzak egitea, saresozialak eta promozioak erabiltzea.

